


LOMLOE: Nora garamatza?



LOMLOEk

LOMCE legea indargabetzen du eta LOE, LODE eta Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurrien Legea aldatzen ditu



Haur Hezkuntza

- Herri-administrazioek pixkanaka handituko dute plaza publikoen eskaintza lehen zikloan, zero eta hiru urte bitarteko haurren eskolatzeko-eraketa guztiei erantzuteko. Halaber, beren arteko eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak-politikak koordinatuko dituzte, ziklo honetan hezkuntza-eskaintza ziurtatzeko.
- Haur hezkuntzako bigarren zikloa doakoa izango da. Familien eskaerei erantzuteko, hezkuntza-administrazioek plaza-eskaintza nahikoa bermatuko dute ikastetxe publikoetan, eta ikastetxe pribatuekin hitzartuko dute.
- Ziklo baten eta bestearen hezkuntza-izaera proposamen pedagogiko batean jasoko dute haur hezkuntza eskaintzen duten ikastetxe guztiek.

Lehen Hezkuntza

- Lehen hezkuntzako etapak bina urteko hiru ziklo hartzen ditu barne.
- Hezkuntza-etapa honetako arloak honako hauek dira:
 - a) Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen ezagutza; natura-zientzietan eta gizarte-zientzietan banatu ahal izango da.
 - b) Hezkuntza Artistikoa: batetik, Plastika eta Ikusizko Hezkuntza, eta, bestetik, Musika eta Dantza.
 - c) Gorputz Hezkuntza.
 - d) Gaztelania eta Literatura, eta, egonez gero, Hizkuntza Koofiziala eta Literatura.
 - e) Atzerriko Hizkuntza.
 - f) Matematika.

Aurreko paragrafoan jasotako arloei, hirugarren zikloko mailako batean Balio Zibikoen eta etikoen hezkuntza gehituko zaie.

- Lehen hezkuntzako laugarren mailan, ikastetxe guztiek ikasleek eskuratutako gaitasunen diagnostiko-ebaluazioa egingo dute. Diagnostiko-ebaluazioaren emaitzak aztertuta, hezkuntza-administrazioek ikastetxeek jardura-proposamenak egitea sustatuko dute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailatik hirugarrenera bitartekoak antolatzea.

Etapako lehen mailatik hirugarrenera bitarteko ikasgaiak honako hauek izango dira:

- a) Biologia eta Geologia.
- b) Gorputz Hezkuntza.
- c) Plastika, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza.
- d) Fisika eta Kimika.
- e) Geografia eta Historia.
- f) Gaztelania eta Literatura, eta, egonez gero, Hizkuntza Koofiziala eta Literatura.
- g) Atzerriko Hizkuntza.
- h) Matematika.
- l) Musika.
- j) Teknologia eta digitalizazioa.

Hezkuntza-administrazioek atzerriko bigarren hizkuntza bat sartu ahal izango dute paragrafo honetan aipatzen diren ikasgaien artean.

Maila bakoitzean, ikasle guztiek ikasgai hauek ikasiko dituzte:

- a) Biologia eta Geologia eta/edo Fisika eta Kimika.
- b) Gorputz Hezkuntza.
- c) Geografia eta Historia.
- d) Gaztelania eta Literatura, eta, egonez gero, Hizkuntza Koofiziala eta Literatura.
- e) Atzerriko Hizkuntza.
- f) Matematika.

Era berean, lehenengo hiru ikasturteetako bakoitzean, gutxienez, arlo artistikoko ikasgai bat sartuko da. Hiru ikasturteetan, ikasleek hautazko irakasgaiaren bat ikasiko dute, eta hori ere lan monografiko edo diziplinarteko proiektu gisa edo komunitatearentzako zerbitzu batekin lankidetzan aritzeko proiektu gisa eratu ahal izango da. Hezkuntza-administrazioek arautuko dute eskaintza hori, eta, gutxienez, kultura klasikoa, atzerriko bigarren hizkuntza eta gaitasun digitala garatzeko ikasgaia jaso beharko ditu. Atzerriko bigarren hizkuntzaren kasuan, haren eskaintza bermatuko da maila guztietan.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila antolatzea.

4. mailako ikasle guztiek ikasgai hauek ikasi beharko dituzte:

- a) Gorputz Hezkuntza.
- b) Geografia eta Historia.
- c) Gaztelania eta Literatura, eta, egonez gero, Hizkuntza Koofiziala eta Literatura. Atzerriko hizkuntza.
- d) Matematika, bi aukera bereizirik.

Gainera, Gobernuak ezarriko duen multzo bateko hiru ikasgai ikasi beharko dituzte ikasleek, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren.

Ikasleek aukerako jakintzagai bat edo gehiago ikasi ahal izango dituzte. Gai horiek lan monografiko gisa edo komunitatearentzako zerbitzu batekin lankidetzan aritzeko proiektu gisa konfiguratu ahal izango dira.

Curriculum anitzeko programak

Curriculum-aniztasuneko programen helburua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzea izango da. Lehenengo edo bigarren mailan laguntza-neurriak jaso ondoren ikasteko zailtasun handiak dituztenek edo, aniztasunari erantzunez, titulua ateratzen lagunduko dienez erabiliko da. Bigarren maila amaitzean, hirugarren mailara igarotzeko moduan ez daudenak curriculum-aniztasuneko programa batean sartu ahal izango dira, ikaslea bera eta haren gurasoak edo legezko tutoreak entzun ondoren, eta dagokion ebaluazioa egin ondoren.

Ebaluazioa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa jarraitua, hezigarria eta integratzailea izango da. Ikasleak maila batetik bestera igarotzeko erabakiak irakasle-taldeak hartuko ditu. Ikasitako ikasgaien edo eremuen helburuak lortu dituztenak edo ikasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa dutenak igoko dira mailaz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan, ikastetxe guztiek ikasleek lortutako gaitasunen diagnostiko-ebaluazioa egingo dute. Diagnostiko-ebaluazioaren emaitzak aztertuta, hezkuntza-administrazioek ikastetxeek jarduera-proposamenak egitea sustatuko dute.

Oinarrizko graduko heziketa-zikloak

a) Komunikazioa eta Gizarte Zientziak, ikasgai hauek barne:

1. Gaztelania.
2. Lanbide Hastapeneko Atzerriko Hizkuntza.
3. Gizarte Zientziak.
4. Hala badagokio, Hizkuntza Koofiziala.

b) Zientzia Aplikatuaren eremua, ikasgai hauek barne:

1. Matematika Aplikatuak.
2. Zientzia Aplikatuak.

c) Lanbide Eremua, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalako 1. mailako kualifikazioa lortzeko beharrezkoa den prestakuntza gutxienez jasoko duena.

Oinarrizko graduko ziklo batean sartutako eremu guztiak gaindituz gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortuko da. Eskuratutako konpetentzia profesionalak lan-eremuan justifikatzen laguntzeko, atal honetan aipatzen diren ikasleek oinarrizko teknikariaren titulua ere jasoko dute, dagokien espezialitatean.

Batxilergoa

Hezkuntza-administrazioek eta, hala badagokie, ikastetxeek, batxilergoan eskaini ahal izango dituzten modalitateak honako hauek izango dira:

- a) Zientziak eta Teknologia.
- b) Giza eta Gizarte Zientziak.
- c) Arteak.
- d) Orokorra.

Batxilergoa ikasgai komunetan, modalitateko ikasgaietan eta hautazko ikasgaietan antolatuko da. Ikasleek ezarritako modalitateko ikasgai guztien artean aukeratu ahal izango dute.

Batxilergoko ikasgai komunak honako hauek izango dira:

- a) Gorputz Hezkuntza.
- b) Filosofia.
- c) Filosofiaren Historia.
- d) Espainiako Historia.
- e) Gaztelania eta Literatura, eta, egonez gero, Hizkuntza Koofiziala eta Literatura.
- f) Atzerriko Hizkuntza.

Ikasleak batxilergoko lehen mailatik bigarrenera igaroko dira ikasitako jakintzagaiak gainditzen dituztenean edo, gehienez ere, bi jakintzagaitan ebaluzio negatiboa dutenean. Nolanahi ere, bigarren mailan matrikulatu beharko dira lehen mailan gainditu gabe dauden ikasgaietan.

Lanbide Heziketako teknikari titulua duten ikasleek batxilergoko titulua lortu ahal izango dute batxilergoko helburu orokorrak lortzeko beharrezkoak diren irakasgaiak gaindituz gero.

Lanbide Heziketa

- Sartzeko eta onartzeko baldintzak.

1. Oinarrizko graduko heziketa-zikloetan sartzeko, baldintza hauek bete beharko dira aldi berean:

- a) Hamabost urte beteta izatea, edo indarrean dagoen urte naturalean betetzea.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila egina izatea edo, salbuespen gisa, bigarren maila egina izatea.
- c) Irakasle-taldeak gurasoei edo legezko tutoreei proposatu izana ikaslea oinarrizko mailako heziketa-ziklo batean sartzea.

2. Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko, baldintza hauetako bat bete beharko da:

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- b) Hezkuntza-administrazioak baimendutako ikastetxe publiko edo pribatuetan erdi-mailako zikloetan sartzeko prestakuntza-ikastaro espezifiko bat gainditu izana.
- c) Sarbide-proba bat gainditu izana.
- d) Oinarrizko teknikari titulua izatea.

b) eta c) idatz-zatien babesean sartzeko, gutxienez hamazazpi urte bete beharko dira proba egiten den urtean.

Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko, baldintza hauetako bat bete beharko da:

- a) Batxilergoko titulua izatea.
- b) Lanbide Heziketako erdi-mailako teknikari titulua izatea.
- c) Hezkuntza-administrazioak baimendutako ikastetxe publiko edo pribatuetan goi-mailako zikloetan sartzeko prestakuntza-ikastaro espezifiko bat gainditu izana.
- d) Sarbide-proba bat gainditu izana.
- e) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari titulua edo unibertsitateko gradua izatea.

d) idatz-zatien babesean sartzeko, proba egiten den urtean gutxienez hemeretzi urte beteta izatea eskatuko da.

Hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleak

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dira desgaitasunaren edo jokabide-, komunikazio- eta hizkuntza-nahasmendu larrien ondorioz (eskolatze-aldi batean edo eskolatze-aldi osoan) sarbidea, presentzia, parte-hartzea edo ikaskuntza mugatzen duten oztupoak dituztenak; baita beren garapenera egokitutako ikaskuntza-helburuak lortzeko hezkuntza-laguntza eta arreta jakin batzuk behar dituztenak ere.

Hezkuntza-inklusioa indartzeko, hezkuntza-administrazioek zeinu-mintzairak gehitu ahal izango dituzte beren hezkuntza-eskaintzan.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten eta derrigorrezko hezkuntzaren helburuak lortu ezin dituzten ikasleen gizarteratzea eta laneratzea errazteko, administrazio publikoek beren behar espezifikoetara egokitutako prestakuntza-eskaintzak sustatuko dituzte.

Hezkuntza-administrazioek plaza erreserba bat ezarriko dute desgaitasunen bat duten ikasleentzat lanbide-heziketako irakaskuntzetan.

Ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak

- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen eskolatzea normalizazio eta inklusio printzipioen arabera arautuko da, eta hezkuntza-sisteman sartzeko eta irauteko benetako berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatuko dira.

Hezkuntzako desberdintasunen ekitatea eta konpentsazioa

- Konpentsazio-politikek hezkuntza-sistemaren ekintza indartuko dute, faktore sozial, ekonomiko, kultural, geografiko, etniko edo bestelako onduziozko desberdintasunak saihesteko.
- Egoera sozioedukatibo zahurgarrian dauden ikasleen eskolatzea parte-hartzearen eta inklusioaren printzipioen arabera arautuko da, eta haien diskriminaziorik eta segregaziorik eza eta hezkuntza-sisteman sartzeko eta irauteko berdintasun eraginkorra bermatuko ditu.

Ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatzea

- Behar diren neurriak hartuko dira ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste arrazoi batzuegatik ez bereizteko. Nolanahi ere, hezkuntza-laguntzen berriazko premia duten ikasleen banaketa egokia eta orekatua izango da ikastetxeen artean.

Berdintasuna onarpen-arauak aplikatzean

- Hezkuntza-administrazioek berdintasuna bermatuko dute onarpen-arauak aplikatzean, eta, horren barruan, eskolatze edo eragin-eremu berberak ezarriko dituzte ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuentzat.

Oreka ikasleen onarpenean

- Guztientzako hezkuntza-kalitatea, gizarte-kohesioa eta aukera-berdintasuna ziurtatzeko, hezkuntza-laguntzen berriazko premia duten ikasleen eskolatze egokia eta orekatua bermatuko dute administrazioek, eta behar diren neurriak hartuko dituzte ikasleen bereizketa saihesteko.
- Hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleen eskolatzea errazteko eta hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoetako plazen eta itunpeko ikastetxe pribatuei baimendutako plazen zati bat gorde beharko diete aurrez izena emateko eta matrikulak egiteko epea amaitu arte.

Doakotasun-bermeak

- Ikastetxe publikoek edo itunpeko ikastetxe pribatuek ezin izango dute inola ere familien dirurik jaso doako irakaskuntzak jasotzeagatik, ez eta fundazioei edo elkarteei ekarpenik egiteko eskatu. Ekarpen ekonomikoa egitea eskatzen duten irakaskuntzei lotutako nahitaezko zerbitzuak ere ezingo dira ezarri.
- Hezkuntza-administrazioek lege honetan doakotzat jotzen diren irakaskuntzen doakotasuna gauzatzeko beharrezko baliabideak emango dizkiete ikastetxeei, eta neurriak ezarriko dituzte ikasleen egoera sozioekonomikoa jarduera osagarrietara eta eskola-zerbitzuetara iristeko oztopo izan ez dadin. Hezkuntza-administrazioek ikastetxeek artikulua hau betetzen dutela ikuskatuko dute.

